


# BASERRIKO ANIMALIAK: BEHIA



**INGURUNEAREN EZAGUERA  
LEHEN HEZKUNTZAKO 2. MAILA**

**Txaro Morrás**  
2012ko apirilean berrikusia

**Arloa: Ingurunearen ezaguera**

**Gaia: Baserriko animaliak. Behia**

**Maila: 2. maila**

**Saio kopurua: 8**

Proposamenaren testuingurua: umeez esnea eta esnekiak hartzen dituzte egunero. Helburua da produktu horiei buruzko oinarrizko informazioaz jabetzea. Bide batez, esnea ematen duen animalia hobeto ezagutzea. Sekuentziaren bukaeran, baserri batera irteera bat antolatuko dugu, behia bere ingurune naturalean bertatik bertara ikus dezaten.

**Landuko diren oinarrizko gaitasunak:**

- **Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna:** A2, A3, A4, A6, A7, A8, A9 eta A11
- **Ikasten ikasteko gaitasuna:** A7, A9, A10 eta A12
- **Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna :** A2, A3, A4, A6, A7, A8 eta A10
- **Matematikarako gaitasuna :** A5
- **Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna :** A3
- **Giza eta arte-kulturarako gaitasuna :** A3 eta A8
- **Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna :** A12
- **Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna :** A9, A10, A13 eta A14

**Helburu didaktikoak:**

- Behiaren atalak eta berezitasunak ikastea.
- Behiaren ugalketa ulertzea (modu errazez).
- Ugaztuna zer den bereganatzea.
- Behiaren elikadura mota zein den jakitea.
- Esnekiak zer den ulertzea eta hainbat esneki mota ezagutzea.
- Jogurta nola egiten den ikastea eta egitea.
- Behia ingurune naturalean ikustea.
- Baserrira egingo den irteeran errespetuzko jarrerak azaltzea.
- Lanen aurrean jarrera arduratsua eta aktiboa edukitzea.
- Naturaren garrantziaz jabetzea.

**Edukiak:**

- Behia: atalak eta berezitasunak
- Behiaren ugalketa
- Ugaztun izatearen kontzeptua
- Behiaren elikadura
- Esnea eta esnekiak
- Jogurtaren prestaketa
- Zuzeneko behaketa behiari: baserria eta haren ingurunea
- Egindako irteeran zentzuzko galderak egiteko jarraibideak
- Bakarkako lanerako jarrera aktiboa, arduratsua eta autonomia
- Naturaren aurreko jarrera positiboa: gozamena eta zainketa.

### Jardueren sekuentzia\*

- a) Planifikatzea:
  - A1. Asmakizuna
- b) Gauzatzea:
  - A2. Nolako naiz?
  - A3. Gure familia
  - A4. Nola ugaltzen naiz?
  - A5. Buruketa
  - A6. Nola elikatzen naiz?
  - A7. Esnea
  - A8. Esnekiak
  - A9. Nahi duzu jogurta egiten ikasi?
  - A10. Hizki-zopa
  - A11. Nola hitz egiten dut?
- c) Erabiltzea:
  - A12. Baserrira goaz
  - A13. Froga idatzia
  - A14. Autoebaluazioa

### Ebaluazioa

#### Adierazleak:

- Ea ikasi dituen behiaren atalak eta berezitasunak.
- Ea ulertu duen behiaren ugalketa.
- Ea bereganatu duen ugaztun izatea zer den.
- Ea ikasi duen behia nola elikatzen den.
- Ea dakien esnea nondik datorren.
- Ea dakien esnekiak zer diren.
- Ea moldatu den jogurta egiten.
- Ea agertu dituen errespetuzko jarrerak baserrira egindako irteeran.
- Ea egin duen zentzuzko galderarik irteeran.
- Ea agertu duen lan pertsonalerako jarrera aktiboa eta arduratsua.
- Ea ohartu den naturalen aberastasunaz eta aniztasunaz.
- Ea agertu duen gaitasunik natura zaintzeko eta naturaz gozatzeko.

#### Tresnak:

#### Jardueren sekuentzian

- Aldez aurreko ezagutzak detektatzeko jarduerak
- Gaiari buruzko froga idatzia
- Koadernoaren behaketa
- Autoebaluazioa: planteatutako ekintzak baloratzeko taula (nahiko, ongi, erdipurdi...).
- Irteeran behaketa zuzena: ikasleen jarrera

Oharra: irakasleak beste edozein ebaluazio-tresna erabil lezake.

## Jarduerak

### A1. Asmakizuna

Irakurri asmakizun hau:

“Adarrak ditut,  
larrean orduak ematen ditut,  
eta nik ematen dudan elikagaia  
hartuta  
hazi zara zu”

Nor naiz?


Bai, asmatu egin duzu, **BEHIA** naiz.

Bada, orain landuko dugun sekuentzia didaktikoan, niri buruz gehiago ikasiko duzu!!

- Nolakoa naizen.
- Nire ugalketa nolakoa den.
- Nola elikatzen naizen.
- Nire familia zein den.
- Zer elikagai ematen dudan.
- Eta politena!!! Egun batean baserri batera joango zara, eta hantxe aurkituko nauzu. Nirekin egoteko eta jolasteko aukera izango duzu.

Nahi al duzu? Bada, aurrera, hasi egingo gara...

## A2. Nolako naiz?



Behatu ongi marrazkiari, eta lotu hitza eta esaldia:

- Bi ditut eta zorrotzak dira
- Lau ditut eta horiekin mugitzen naiz
- Luzea da eta puntan ileak ditu

BUZTANA

ADARRAK

HANKAK

### A3. Gure familia



BEHIA



ZEZENA



TXAHALA

Familia honetako ama..... da


Familia honetako aita..... da

Eta kumea..... da

- Egin behiaren marrazkia koadernoan, eta koloreztatu.
- Nahi baduzu, sartu **Google.es**-en, eta, animalia horien izenak idatzita, marrazki politak aurkituko dituzu.

#### A4. Nola ugaltzen naiz?

Animalia bat ugaltzea kumea egitea da. Ugaltzen denean, behiak txahalak izaten ditu. Honela gertatzen da:



- Txahala amaren sabelean egoten da 9 hilabetez, jaioko baino lehen.
- Denbora hori pasatzen denean, txahala amaren sabeletik irteten da: jaioko egiten da.
- Txikia den bitartean, kumea amaren esneaz elikatzen da.
- Esnea behiaren ugatzetatik ateratzen da.
- Horregatik esaten da behia **UGAZTUNA** dela.

#### UGAZTUNAK:

- Amaren sabeletik jaiotzen dira.
- Amaren esneaz elikatzen dira.




### A5. Buruketa

“Baserri batean bi behi daude. Bakoitzak bi kume ditu”

Zenbat hanka dituzte bien artean?

Eta zenbat adar?




Datuak apuntatu:

Eragiketak egin:

### A6. Nola elikatzen naiz?

Nik ez dut bizitza osoan esnea edaten, txikia naizenean baino ez. Handia egiten naizenean, larreetan dagoen belar freskoa eta gozoa jaten dut, ni belarrez elikatzen naiz handitan.

**BELARJALEA** naiz. Ez dut haragirik jaten.



Hauetatik zein jango luke behi batek? Borobildu zer jaten duen.



## A7. Esnea

Nire kumeak handiak direnean, badakizue esnea edateari uzten diotela eta belarrez elikatzen direla. Zer gertatzen da nire esnearekin?

Bada, esne hori gizakiek aprobetxatzen dute, eta beraiek eta bere umeek edaten dute.

- Esnea likido zuria da.
- Gure osasunerako oso ona da.
- Bitaminak eta proteinak ditu (gorputzak behar dituen elikagaiak dira).
- Kaltzioa ere badu. Gure hezurrek, hazteko, kaltzioa behar dute.
- Esnea edaten baduzu, handia eta indartsua egingo zara.

Begiratu beheko argazkiei, eta ipini azpian zenbakia (1etik 6ra) argazkiak ordenatzeko; horrela, jakingo duzu zer bide egiten duen esneak guk edan arte.




- 1.....
- 2.....
- 3.....
- 4.....
- 5.....
- 6.....

## A8. Esnekiak

Esnekiak esnez egindako produktuak dira.



Egin marrazkiak:



## A9. Nahi duzu jogurta egiten ikasi?

Oso erraza da, eta eskolan egingo dugu.

Osagaiak:

- Esnea
- Jogurt bat
- Termometroa
- Kristalezko ontziak
- Koilara bat
- Sukaldeko zapia, beroa emateko

Nola egiten da?



Jarri koilarakada bat jogurt kristalezko ontzi guztietan.



Jarri esnea berotzen, 85° C izan arte. Eduki esnea temperatura horretan 10 minutuz. Noizean behin eragin esnari, lapikoan ez itsasteko.



Jaitsi temperatura 45° C ingurura. Jarraitu esnari eragiten noizean behin ordu erdian. Temperatura horretatik ez dadila jaitsi.



Esnea ontzietan ipiniko dugu. Bete-bete egiten baditugu hobeto; horrela, aire gutxiago sartuko da.



Nahastu ondo esnea eta jogurta koilara batez.



Estali ongi ontziak sukaldeko zapiaz ez hozteko, eta sartu kutxa batean.



Utzi bertan gutxienez 6 orduz. Gau osoan uzten badituzu, hobeto. Berogailu ondoan uzten badituzu, hobeto.



Behar den denbora pasatzen denean, atera ontziak kutxatik eta sartu hozkailuan. 4 orduren buruan prest egongo dira jateko.

## A10. Hizki-zopa

Aurkitu behiarekin lotuta duten 8 hitz, hizki-zopa honetan.

M	U	K	P	B	X	G	H	J	Z
B	E	L	A	R	R	A	K	A	M
E	A	R	R	O	K	E	X	T	L
H	J	A	D	A	R	R	A	A	S
I	K	G	L	R	P	N	Z	L	D
A	Ñ	A	T	I	E	O	T	A	A
P	G	N	R	Z	S	A	A	H	E
E	R	B	E	A	D	E	G	A	N
P	K	Z	L	A	S	G	U	X	S
R	J	H	N	Z	O	I	H	T	E

Idatzi hitzok hemen:

- |         |         |
|---------|---------|
| 1 _____ | 2 _____ |
| 3 _____ | 4 _____ |
| 5 _____ | 6 _____ |
| 7 _____ | 8 _____ |

## A11. Nola hitz egiten dut?

Nik ez dut zuk bezala hitz egiten. Nik maaaaaaaaaaaaaaaaa egiten dut. Horrela komunikatzen naiz beste behiekin. Komunikatze era horri **marru egitea** deitzen zaio.



Ba al dakizu nola egiten duten beste animalia batzuek? Ardiek, txerriek, txakurrek, ahateek, katuek... Galdetu etxean eta idatzi koadernoan. Gero, ekarri eskolara informazio hori.

## A12. Baserrira goaz

Gauza asko ikasi dituzu niri buruz. Ezagutu nahi al nauzu?

Bada, hori oso erraza da, BASERRI BATERA joango gara. Eskolatik gertu dagoen baserri batera.

Han aurkituko nauzu, eta ni ikusteko eta ukitzeko aukera izango duzu. Baina beti errespetuz jokatu behar duzu, eta baserritarrak esandakoa beteko duzu. Berak ezagutzen nau oso ongi, eta badaki zer gustatzen zaidan eta zer ez.

Baserrian galderak egiteko aukera izango duzu, horregatik komeni da alde zuretik prestatuta eramatea.

Baserrira joan baino lehen egitekoak:


- Adostu eguna eta ordua.
- Prestatu gurasoentzako oharra.
- Egin eraman behar ditugun gauzen zerrenda:
  - Arropa eta zapata erosoak
  - Bero egiten badu, biseratxoa
  - Kantinplora
  - Ogitartekoak, han zerbait jateko
- Prestatu galdera-zerrenda irakaslearen laguntzaz.
- Koaderno eta arkatza



**EBALUAZIOA**

**A13. Proba idatzia**

1. Behiaren atalak idatzi



2. Egia ala gezurra?

	E	G
Txahala naizenean, esnez elikatzen naiz.		
Behiak haragia jaten du.		
Behia belarjalea da.		
Behiak arrautzak jaten ditu.		
Lastoa eta belarra jaten ditu behiak.		



3. Nola dago osatuta nire familia? Egin marrazkiak eta jarri bakoitzari izena

AMA

AITA

KUMEA

4. Esnekia bada, lotu esnearekin:

Jogurta

Patatak

Gazta

Arraina

Esnegaina

Mamia

Natillak



ESNEA

Arrautzak

Gurina

Txokolatea

